

Juana Gabilondo Legorburu

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1908-2006)*

Aurkibidea

Biografia



Irimoegigoena auzoko Ibarra baserrian jaio zen 1908ko martxoaren 27an eta bertan hazi zen. Aita Eusebio Gabilondo zuen eta ama Anastasia Legorburu; biak Antzuolakoak ziren. Aita, baserriko lanaz gain, gurdizain ere ibiltzen zen hala eskatzen ziotenean. Gurdiarekin eta idi parearekin inguruko herrietara ikatza, egurra, narrua eta abar garraiatzen zituen.

Zintak

ANT-006

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Legorburu, Jone
- **Data:** 1994-01-01
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ANT-041

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2004-05-28
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ANT-042

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2004-05-28
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-126

- **Proiektua:** Antzuolako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pavo Nuñez, Kristina
- **Data:** 2004-01-01
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** Mini Disc

Pasarteak

1. Abadeen eragina neska-mutilengan

- **Erref:** ANT-006/001
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Dantzan. "Neskatxak mutilekin ez zabizte gaizki" kanta zaharra. Erromeriako aldrebeskeriak abadeari konfesatu behar. Kongregazioa. Zinta berdea.</p>

Transkripzioa

- Gero bakarrik dantzan gebitzenian, zerak kantatzen jonan, Anjela [Aurrezabalguak], [Garbitxun] ta amak, --lehelengo ez [...] ze esaten eban--: "neskatxak mutillekin ez zabizte gaizki". Ta mutil barik ibiltzen giñuztaan dantzan. Ta harek esaten zoskun hori: "neskatxak mutillekin ez zabizte gaizki", kantuan, panderua juaz harek. Ta horrek danak be, ba, entzun ein bihar izaten zittunan.
- Ta gero konfesatzera be jun biharko ziñuen, ba? Erromerixako aldrebeskeixak eta...
- Eta gero kongregaziñotik etara dantza ein nebalako.
- [...] kongregaziñotik etara zebe hori. Ni sartu barik nenguan, e?
- Eta gero, jun bihar zan aste-egunian beste zinta batekin hiru aldiz jauna hartzera.
- Zinta berdia. Zinta azula izeten zan komuniokua edo... kongregaziñokua, eta gero zinta berdiakin.
- Ta gero zinta berdiakin jun bihar ziñuan kastigauta. Atzera sartuko baziñan kongregaziñuan, hauraxe ein bihar zonan.
- Haura distinziñua zonan. Ni ez nitzan sartu ta...
- Ein neban hori.
- Ta ze zonan, ba, kongregaziñua?
- Hillero neska zaharrak aurretik eta gaztie atzetik jutie illaran.
- Juntakuak zien, e...
- Luistarrak bezelaxe!
- Juntakuak zittunan, ba, zerak, soltera edadetuak. Ta atzetik geiñetikuak. Luistarrak be bai ta Marian alabak be bai. Ta gero, Marian alabak, ba, horixe eukitzen zebe: dantzarik ez ein bihar. Eta bati esan zotsen, dihar ein zotsen batek, -- harek "zu" esango zotsan, nik oin "hi" esango dotsuet: "Atzo mutillekin dantza ein ziñuan". Eskolan zebillen neska haura, baiña hamalau urte kunpliduta zeuzkan. Ta: "Zuk mutillekin dantza ein ziñuan". "Bai, baiña nere lagunak mutillekin dantza ein ta gero kafia hartzera jun zien".
- Bera, ba... bera hori ein barikua.
- Bera [...]. Ta kongregaziñoko jentia holaxe zainttu bihar izeten zaben. Harek ziran zerekuek, juntakuek. Ta juntako harek zaintzen zittuen gaiñetikuak zela zebitzen.
- Nik Ondarren ein najonan dantzan. Gaiñera, zereko, Don Isidron lehengusiña bat, moja jun zonan haura, hauraxe, Dionisio ta neure gizon zana, ein giñunan dantzan. Ta baten batek ikusi giñuzen ta hurrengo egunian diharka. Ta, ba, zintiakin jun bihar zala atzera segitze ezker, ta, ba, ein giñuan hori be. Gaurko jiria ez zan orduen. Gu bildurrez bizi izan giñen holako gauzekin. Ta zuk esan dozuna, konfesatzera be hantxe, illaran. Sei aurretik bazeren, zazpi bazeren, hantxe illaran ta...
- Haura distinziñua izeten zonan.
- ...gero, ba... Bai.
- Zinta berdiakin, ba, distingiduta harek. Harek, ba, pekatarixa haura.
- Bai, distingiduta. Ta gero: "Gehixao ez dozue dantzarik ingo?", ta ezetz esan bihar.
- Nahiz ta gero ein...
- Bai, ba! Nahiz ta gero eiin. Ta, holaxe zan.
- Holaxe zonan.
- Holaxe zonan ta kitto.
- Eta azkenian, zinta berdia azula baiño gehixaotan erabili bihar ixa.
- Ez, atzera kendu. Haura atzera entregau ein biher zan. Bai, ba.
- Eske, Ondarren be [ikusigatik], Deskargan ta Uzarragan be ez jonen harek ikusten.

- Ez.
- Orduan, han aprobetxau bihar...
- Bai, ba! Han aprobetxau bihar izeten zonan.
- Ta atento zain egoten zien, beste lanik ez jonen eukitzen ta! Txarrak ez zien izengo, baiña horixe.

2. Kubako gerraren inguruko kontuak

- **Erref:** ANT-041/003
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:05:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » XIX. Mendea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Aita Kubako gerran ibilitakoa. Aitaren lagun batek gerrako ipuin ugari kontatzen zituen.</p>

Transkripzioa

- Eta aitta, ze esaten dozu, Kubako gerran egon zala?
- Bai. Horrek esan dau. Gerran egon zana banekixan, nik Kuban zan edo ez zan... Gerrako kontuak esaten zittuana banekixan nik, baiña...
- Eta, orduan, kontatzen zittuan lantzian behin...
- Bai, beti be kontatzen zittuan. Harek baiño hobeto kontatzen zittuan Kanutok.
- Zein zan Kanuto?
- Kanuto [...], beste gizon bat.
- Laguna edo?
- Bai. Laguna izengo zan edo...
- Eta haura be gerran berakin batera egondakua?
- Bai.
- Orduan, gaiñera, gerrara pagatzerik zekana librau eitten zan, ez? Sasoi hartan.
- Bai.
- Gero bai, baiña orduan hola izeten ete zuan, gero?
- Ez dakit, baiña egon zan hori, behintzet, sasoi baten.
- Bai, bai, gero bai. Gero, soldautzia pagautakuak izeten zian. Zeukanak; ez zeukanak, ba, jun ein bihar.
- Ni akordatzen naiz, zure gizonak esaten zeban, harek zuen aittei entzunda, jun zala denda batera zerera, jua zala denda batera alpargatak erostera.
- Hori zela zuan? Aitta ez zuan, zera...
- Kanutok esandakua?
- Kanutok. Guri Kanutok kontatzen oskuan danak.
- Kanuto hori sinpatikon bat izango zan. Eta jun zala alpargatak erostera eta, bueno, ba, neurrikuak hartu ta "dios se lo pague" esan ta kalera soldaua. Eta zerak, han zeuan dependientiak: "¡Españoles, puñeteros, carajo! ¿A qué han venido estos españoles? ¡Más valía haber hecho salchichas!" Eta barrutik, trastiendatikan urten zebala nausixak eta esan

zebala: "Déjale al pobre muchacho". Eta urten zebala berak, honek, Kanuto edo horrek, honekin batera...

- Bai, bai. Hori zan gure gizonan tio. Guk aittai ez gontsan entzuten sekula gerrako kontuik.
- Don Bizentei ta esaten otsan, ba!
- Bai. Don Bizentei esango jotsan. Tentau eingo juan ta!
- Don Bizente zan hemengo mediku zaharra eta, bueno, haura baiño honen aitta zaharraua zan, baiña, bueno, haren kontuak-eta gustora entzungo zittuan harek eta hari esango zotsan.
- Bai, hari kontauko [juan], baiña guri geuri ez.
- Etxian gitxi, orduan?
- E?
- Etxian gitxi.
- Bai.
- Gerrako kontuak. Baiña bestela kontauko zittuan, ez?
- Bestela bai. Bestela kontatzen zittun. Historiak bestela kontatzen zittuan.
- Bai? Beran aittanak eta amanak eta... Edo zelakuak izaten zian?
- Ez, ez.
- Zelan bizi zan, edo...?
- Basarrixan beti igual.
- Bai, kanbixo haundirik ez zan egongo, ez?
- Ez, ez zan egongo.

3. Amak goruetan egiten zuen

- **Erref:** ANT-041/004
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:05:06. **Bukatu:** 00:09:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak

Laburpena:

<p>Aita eta ama kontulariak. Amak goruetan egiten zuen. Hariarekin ehuna egiten zuen. Arreoan ehunezko izarak eraman zituzten beraiek. Lihoa (linua) Durangotik ekartzen zioten, haria egiteko prestatuta. Haria egiteko, amak makina erabiltzen zuen. Ehulea Antzuolan bertan zegoen.</p>

Transkripzioa

- Eta ama be kontalarixa zan? Ipoiñak eta... Halan, gabetan, afaltzeko orduan edo, basarrixan, danak sukaldian egonda...
- A! Familixan kontu asko erabiltzen giñuan. Hola, pasadizoko kontuak, ezta? Baiña harek eitten zeban goruetan. Goruetan. Harek ez jeukanan astirik konturik esateko. Ta gu komeni berak goruetan gabien eitteko ta... Egun baten geldittu gara Modesta ta bixok, sokasaltoka eittia pentsau dou, ta ez dou, ba, bonbillia apurtu? Ta orduaintxe komeni hari akabatzia. Zeatik harek gero harixa ein ta ehuna eitten zeban. Ta emon zoskun bakutzai biña juego: azpikua ta gaiñekua zerak, izarak.
- Arriuan eruateko...
- Ehunezko izarak. Gu, bi aitzai bai ta zaharrauai be emongo zotsen.
- Ta zuk liñua ezaututa dakazu, orduan?
- E?
- Ehuna liñua izengo zan...
- Liñua? A! Bai, bai. Durangotik ta ekartzen zan, e? Hemen ez zan [...] ta

Durangotik.ta ekartzen zebeñ liñua. Hemen, bertan ez, bertan ez zan ezautzen. Baiña goruetan eitten zebana bai.

- Eta ze ekartzen zetsen lanaria ala ya pixkat preparauta, ala...?
- Ez. Ba, zera... liñua harixa eitteko gertu-gertu. Gertu-gertu ekartzen zebeñ harek.
- Mataza moduan edo...
- Matazak. Hori da! Matazak moduan.
- Liñua preparauta, jota, garbittuta...
- Bai, bai, bai. Dana, garbittu ta eindda.
- Eta Durangotik ekartzen zan, e?
- Durangotik. Azken aldian Durangotik. Lehenago egongo zan akaso hemen bertan be, baiña gero Durangotik. Ta goguan daukat, neri be emon zosten, ta nire aizta gaztiauai be bai ta zaharrenai be... Guk ez giñuan kasorik ein zaharrenak ze eruan zeban, baiña biña juego emon zoskuen.
- Eta, orduan, goruetan zelan eitten zeban? Akordauko zara, ikusten zenduan eta...
- Makiniakin. Makinia zeukan, e!
- Makiñia zekan?
- Bai, makina bat zan.
- Eta, pedala edo... zelan funzionatzen zeban makiñiak?
- Makiniak, ba, hankekin. Hankekin junaz ta eskuakin segidu bihar zerai, harixai. Beti be txistua einda busti ta...
- Lotzen juateko edo...
- Bai, bai. Harixa eitteko.
- Zeuek ez ziñuen ikesi hori eitten?
- Ez. Nik hola... zeran, erakutsi ein jostan hola, zerakin, beste zerorrek in eskuetan, baiña ez. Ez. Guk ez giñuan ikasi.
- Ardatzakin edo?
- Ardatzakin. Hori da, bai. Baiña, ez, guk ez giñuan ikesi. Haura bera izan zana dana eitteko lain. Baiña asko ein zeban, e! Askot! Zeatik gure aitziai be emongo zotsan. Guk orduan ez giñuan atenziñoia eruan, ezta, zaharrenaatik ta... Gu bixoi behiñepein, goguan daukat, zela emon zoskun. Neuk ondio markak ein notsen bixei, inzialak ipiñi ta danak. Biña...
- Ordurako, gaiñera, liñua galtzen egongo zan, ez?
- Bai, bai. Orduan ya [kasi berak] bakarrik eingo zeban ehuna ataratzen... Gero, ehuna hemen bertan eitten zebeñ, e?
- Hori da. Zeure amak, orduan, harixa eitten zeban eta [...] zuzenian harixa gorde, ala ehuliari eruan, ala...?
- Harixa? Ez. Zuzenian eruan eitten zeban. Ba, ze tamaiño bihar zan jakitzen zebeñ ta...
- Eta nora eruaten zeban? Hemen, Antzuolara?
- Hementxe, Antzuolan, [Aldamarkora]. [Aldamarko]... Gaspar baiño zaharraua zan beste bat. Bai. Bergaran lana eitten ei zeban hilaturan baten edo, ta gero, bittartetan hasi zan ta hementxe eitten zeban ehuna. Bai. Ta mantelak-eta be eitten... bueno, mantelak [...], mahai txikixa izaten zan ta harako mantelak-eta be eitten zittuan ta...
- Eta ze eitten zittuan? Hori, izarak-eta, eta gero, bordautako zeoze be bai, ala...?
- Ez, ez. Harek telia eitten zeban bakarrik. Telia. Gero norberak neurtu izarak eta [algaiñian] josi. Ez zien izaten izarak osuak, bi zatikuak; erdixan [algaiñian] josi bihar. Ta gero markau edo ein ta...
- Eta zeuk egunen baten lagunduta amari ehuliagana edo ikusitta dakazu zelan hartzen zittuan neurrixak edo...?
- Ez, ez, holakoik ez giñuan [kasoik eitten].

4. Familia giroa

- **Erref:** ANT-041/007
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:12:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Baserriko bizimodua. Ume asko etxean; ume-umetatik lan asko egin behar (itulan...). Abereak.</p>

Transkripzioa

- Eta orduan umetako rekuerdorik badakazu, holan, ume-umetakorik? Basarrixan jolasian-eta asko eingo zenduen.
- Bai.
- Lana be asko...
- Lana be bai. Goizian jaikitzen giñan gu, ba, zazpi terdiak inguruan edo, eta ittulara, ganauen aurretik ibiltzen giñan. Ta gero zortzi terdietan edo, berakatz-zopia eitten zeban amak eta gaiñian esne puskatekin almortzua.
- Eta ittulan eittia gustatzen jatzun?
- Ez jakun gustatzen, baiña jun ein bihar. Segun zenekin zan! Batzuk zerauak zian, suabiauak zien, e! Ta beste batzuk, hola, maldeziñuak-eta be esaten zittuen ta harekin ez giñan halako gustora be ibiltzen. Ta, en kanbio, nere aizta hurrengo hori bera be ibiltzen zan ganauekin. Hari ikaragarri gustatzen jakon ganaua. Ta ni harekin ittulan be ibilitta nao.
- Eta ze eukitzen zenduen, ganau asko?
- Bai, ganau asko. Idixak egoten zian ta. Ta gero bost bat behi edo holaxe.

5. Ibarre baserriaren historiaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-041/008
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:12:22. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Baserriaren egituraren eta historiaren inguruko azalpenak. "Txahal-larrua bete urre" egon zela baserrian esaten zen. Umetan, Juana eta ahizpa batek urrezko txanpon bi aurkitu zituzten.</p>

Transkripzioa

- Haundixa zan, e? Haundixa zan etxia.

- Ta solua be, gaiñera...

- Bai. Erdixa zan pisua ta beste erdixa, ba, zaltaixa, zapaixa esaten jakon, ganbaria... Baiña ganbaria beste batek goixan zeukan. Baiña haura etxeaura etxe ona izendakua da. Lehengo baten, burura ez dakit zela etorri jatan, hola, goixan, sekulako zera zeukan harek. Eta halaxe segidu zan harekin. Eta haura etxe gutxittan egoten zan, e?

- Eta ze zan? Tetxuan zeoze?

- Tetxuan zera... Oin izenik ez jata akordauko ta...

- Dekorauren bat?

- Dekoraua. Ta igeltserua etortzen zanian --urtero-urtero etxia zuritzen zan, e!--, ta igeltserua etortzen zanian, haura beti hori pintatzen zeban. Ta harek bazeukan zeozen zeren bat. Haura etxeaura izengo zan [...]. Entzunda nao txahal-narrua bete urre be egon zala Ibarren, "en aquellos...", nunbaiten izango zan. Baten batzuk izango zien aberatsak. Harek ontzako urre harek ez zian guriak. Harek be jausi zian baten batek gordeta euki zittualako.

- Historixa politta kontau dozu lehen, bai. Orduan, umetan, halako ontzako urria...

- Bai, bai, bai. [...] historixak. Baiña artua aletu bihar giñuan errotara eruateko eta hantxe gabitzela, ganbarara jun giñanian, jun giñan ta nik, holaxe, trapu bat zeuan ta trapuari "ta!" holaxe heldu notsan. "Ene, hi! Dirua jan!" , "Dirua?", ta "Bai, dirua. Beittu!" Beittu giñuan. Beste aizta zaharraua artian etxian zeuan. Ama ez, ama... Orduan kostunbria zeuan, hola, neguan, atsaldia pasatzera beste baten etxera juateko-edo. Bueno, kostunbria ez, bakutxa bere senidetara, ezta? Ta haura junda zan beste leku batera. Ta esan notsan oindio, --lehelengo, behian zeuan sukaldia ta gu goixan, ta-- goiko eskillarara junda esan [gontsan]: "Hi, meriendia emongo doskun?" Haura [azkar zeozeatik] bazeuan. Ta "Hara, ez jotsan inporta emoten ez badoskun, e? Dirua jaukanau". "Dirua? Nundik daukuzue, ba, dirua?", "Beittuixon!" Ta hola, poltsan zaratia etara giñuan. Bueno...! Haura be ikaratuta geldittu zan. Anaia etorri zan fabrikatik edo, ta esan notsan: "Patxi, hau ta hau pasau jaku", ta "Ez da egixa!" , "Bai, beittu!" Haura segiduan hartu zera, ontzixa, ta arto-[kaskarrak] ganauentzako ekartzera. Baiña gehixao ez zan azaldu. Bat, txiki bat, soruan billau zebela esaten zeuben, labratzen zebizela.

- Orduan, halako historixaren bat, ez? Urria gordeta egon zala ta...

- Bai! Bai, bai. Han jende zeren bat bizi izendakua izengo zan. Horreatik esaten dot nik, harek dorau harek-eta ez zirala sasoi haretakuak.

- Eta armarririk-edo bazekan basarrixak?

- Ez, ez zeukan hola... Ez zeukan hola aparteko zerik.

6. Baserriaren egitura

- **Erref:** ANT-041/009
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:16:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Baserriaren egitura. Goian lau logela eta bi alkoba. Gaztaina-sala. Ganbara.</p>

Transkripzioa

- Zelakua zan basarrixa?
- Zabala. Esaten dotsut, erdixa zan pisua. Behian sukaldia ta goixan zeuzkan, bat, bi, hiru... lau kuarto ta bi alkoba.
[...]
- Lau kuarto eta...
- Bi alkoba zeuzkan.
- Haundixa, ez?
- Bai. Eta behian zeuzkan sukaldia ta gero... pentseizue, gaztaiña-salia esaten gontsan ta sekulako lokala zan. Ta gaztaiña asko batu bihar izaten giñuan, sail asko zeren ta. Hari gaztaiña-salia esaten gontsan. Ta oin han lokal haretan egongo dia salia ta bi kuarto [... eren] ipinita, oingo basarri... Esan ziñuan ze basarri...
- Bai, komentau zenduan oin nekazalturismua edo dala, ez?
- Bai. Pentseizu zelako zera izengo zan. Gero sukaldia ta artian beste kuarto bat zegan. Hori beheko pisan, e? Eta gero goixan horrek eta ganbaria artien.

7. Sukaldea zelakoa zen

- **Erref:** ANT-041/010
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:19:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Sukaldea zelakoa; sukaldeko tresnak. Jatekoak: babak; porru-patatak; leka-patatak... Taloa; morokila. Soroan, artoa eta garia ereiten zituzten.</p>

Transkripzioa

- Eta sukaldia zelakua zan? Zuk ezautu zenduan ganauak bistan eukitzia ta...?
- Ez, ez. Halakorik ez zeukan . Sukaldia. Baiña beheko sua, e? Ekonomikarik eta, gero ipiñi zian.
- Eta beheko sua nun zekazuen? Erdixan, ertzian...?
- Baztar-baztarrien. Ta han artua ta esnia ta egosten zan ta...
- Eta gitxi gorabehera ze akordatzen jatzu, holan, ze tresna zekazuezen sukaldian? Laratza egongo zan, treberia be eukiko zenduen...
- Bai, bai, kalaro. Berakatz-zopia eitteko-ta, treberia ta horrek bihar izaten zebe. Baiña gero beste baztar baten hornillua ipini zebe ta gero hornillo haretan eitten zian... peskaue-ta [ipintzen zebanian-ta], han eitten zian. Baiña, bestela, gero geure akorduan ekonomikia ipini zan. Gerotxuao.
- Eta ordura arte beheko sua?
- Beheko sua.
- Eta zelan konpontzen ziñazien? Ondo, ez?
- Ba, ondo.

- Ondo konpondu bihar, ezta?

- Bueno, orduen ze egongo zan, ba? Urdai pusketan bat eta lapikuak.

- Orduan, gaiñera, janarixa be, oin esaten dozuna, ez? Babak izango ziran...

- Bai, bai, babak eta porruak eta patatak eta bainak eta patatak eta... idarrak be bai, [berriz], batzuetan. Hori, gaberako berduria; eguardixan beti babia. Eta bijilixarako baba-zurixa. Pipar gorrixak bota ta pixkat argittu ta jaten giñuan.

- Eta talorik-eta eitten zenduen?

- Bai, baiña kantsau eitten zan ama taluak eitten. Asko [gintzan], bai, e! Neuri ez zosten hainbeste grazia eitten taluak.

- Ez, e?

- Nik artua ta esnia gustoruaio jaten neban. Baiña taluak eitten zian, bai. Ta berak azkenian jaten zeban gaztai pusketan bat sartu ta taluakin. Amak jaten zeban. Baiña guk geuk talua ta esnia.

- Eta artu ta esnia... Morokilla be jango zenduen...

- Baita. Morokilla be eitten giñun beti be.

- Ta zelan eitten zenduen morokilla?

- Morokilla, ba, ura irekin erain gatz pittin bat botata, eta hurrengo aldiko puskat, aldiko puskat iriña bota, eta hartara, ba, ez jakon eitten pikorrik. Ondo egosi bihar!

- Denporia bihar, ez?

- Denboria bihar. Bai, denboria bihar.

- Zuluana ze eukitze zenduen garixa? Ta artua be...

- Artua ta garixa, bai. Baiña sail haundixak, e! Oin hemendik begira egoten naiz ta esaten dot: "Guk eitten giñuan ba hor [...]?" Oin dana berde-berde dauke. Klaro, oin ez dauke... Behixak badauzke, baiña besteik ez dauke ta... Ez, ez.

- Oin soluak gero ta gitxiau ta gero ta txikixauak ikusten dia, ez?

- Bai. Ez, dana... dana berde. Ganaua be jare eitten jaue ta ganauekin dana zertu.

8. Gari-jotzearen inguruko kontuak

- **Erref:** ANT-041/011
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:19:31. **Bukatu:** 00:20:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Ingurua zelakoa zen. Gari-jotzea hasieran, "txanketian" egiten zen. Gerora, makina bat erosi zuten inguruko baserritarren artean eta elkarte antzeko bat sortu zuten.

Transkripzioa

- Basarri ingurua ta zelakua zan? Solo haundixak, esaten dozu, eta gero, basuak-eta zer ziran...

- Ez. Hemen, han gertuan ez geunken guk ezer, basorik-eta ezer; basuak-eta aparte. Baiña sail haundixak, e! Sail haundixak.

- Eta garixa ereitten zenduen, ez?

- Garixa ereitten [giñuan]. Bai. Eta lehelengo gure akorduan jotzen zan, ba, txanketian esaten jakon, harrixan.
- Gogoratzen dozu? Zuk ikusitta dakazu txanketian jotzen?
- Bai. Hori akordatzen naiz. Baiña gero, ba, soziedade bat juntatu zebeu lau edo bost lagunek eta makiña erosi zebeu. Ta gero, etxe baten zera zeuanian, ba, laguntasuna etxe haretara juten zan, bi edo hiru lagun, ta holaxe alkarri lagunduta ibiltzen zien.

9. Baserriaren egitura

- **Erref:** ANT-041/012
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:20:28. **Bukatu:** 00:21:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Baserriaren egitura. Artoa ganbaran gordetzen zuten.

Transkripzioa

- Basarrixan egitturiakin jarraituta, esan dozu lehenengo, bueno, erdixa bizitza zala, sukaldia eta habitaziñuak, ta gero...
- Bestekaldia zaltaixa, ta gero, zapaixa esaten gontsan. Ganbaria, geure habitaziño aldetik zeuan ganbaria. Beste hori, zapaixa, ba, garua ta bedarrak, badarronduek-eta eukitzeko. Haura zan artua ta babia-ta sekatzeko.
- Sala bakoitza edo gela bakoitza gauza baterako zan, ez?
-Bai.
- Baten gaztaiña, beste baten garua...
- Bai. Gaztaiña behian eukitzen giñuan. Baiña gaztaiña be, bueno, asko.
- Ta gero, garua edo iria, ez?
- Horrek bestekaldian, zapaixan, beste bizitzan.
- Eta artua be eukiko zenduen.
- Bai. Artua geu bizi giñan lekuan, ganbaran.
- Justo goixan.
- Bai. Pisan, osea, habitaziñuan gaiñian ganbaria oso-osokua, e? Ganbaria be haundixa. Klaro, etxe haundixa zan ta. Etxe haundixa zan ta.

10. Gariaren inguruko lanak

- **Erref:** ANT-041/013
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:21:32. **Bukatu:** 00:25:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Gariaren inguruko lanak. "Gari-jorra", gariaren artean hazten zen oloa ateratzeko egiten zen. Garia auzolanean jotzen zen. Herritik ere laguntzera joaten ziren. Gari-jotzea amaitu ostean, "galafaria" egiten zen.</p>

Transkripzioa

- Garixa erein eta... noiz izaten zan hori?
- Garixa ereitten zan... dizienbrian edo?
- Hor inguruan.
- Hortxe inguru hortan nunbaiten izango zan.
- Ta zeintzuk izaten ziran... garixa erein eta handik hillebete batzuetara ya hasiko zan ernetzen...
- Ernetzen hasten zan, eta gero, ba, jorratu biharrik-eta garixak gutxittan eukitzen zeban. Bedar [askotzarik] ez zan egoten. Gero azaltzen zian olua ta horrek, burua hazten jakonian, ta orduantxe etara bihar izeten zeben.
- Bai? Txarra da olua edo...?
- E?
- Olua txarra da garixa [...]?
- Bai, bai, bai. Olua diferentia da.
- Komeni da kentzia, ez?
- [haura kentzia]. Orduan, eitten zan, harek azaltzen zianian, gari-jorria esaten jakon. Baiña kurioso ibili bihar!
- Eta zelan eitten zan gari-jorria? Zeoze tresnaren bat erabiltzen zenduen?
- Ez, ez, ez, ez. Tira eindda etara, tira eindda etara eitten zian.
- Eta izenen bat zekan horrek? "Esku-etena" edo zeoze...?
- E?
- Moduren baten esaten zetsazuen horri?
- Ez, ez. Zela izeten zan... konparaziñorako, hazi bat igual izengo zan, ta harek zekarrena tira ein ta etara. Eta batu. Pillatu ta...
- Eta hori be aprobetxauko zenduen zeozetarako.
- Bai, haura be ganauentzako izaten zan; sustarra kendu ta ganauentzako.
- Eta garixa ya, hemen inguruonetan, noiz egoten zan helduta?
- Garixa ez dakit, ba, nik ze sasoi izeten zan...
- Julixo inguruan edo...?
- Bai, inguru hortantxe izen bihar, Santiago inguru hortantxe izen bihar.
- Eta gero bihar haundixa eukitzen zeban, ez?
- Bai. Etortzen zan, jendia ibiltzen zan... Bi zeretan egoten zan. Hemen behian lasterraio heltzen zan, ta goiko basarritan beranduaio. Ta goiko basarrikuak etortzen zian behera atzera gero gora juteko. Neu be ibilitta nao goiko basarri baten azau zerak lotzen, garixa lotzen.
- Auzolanian eitten zan...
- Auzolana bezela. Baiña gerora ez zeben nahi izaten, zeatik hemen, kalian be bazeren, hola, zekixenak, eta lanari lagatakuan gustora jutun zian, afari bat izeteatik be, e! Gustora jutun zian.
- Garixa ereitten zanian, akordatzen jatzu, holan, afariren bat edo eitten zan?
- Galafarixa-edo izeten zonan. Gari-afarixa edo, bai.
- Hori ze izaten zan, garixa ereindakuan ala ya...?
- Ez, ez, ez, garixa akabautakuan.
- Akabautakuan...
- Akabautakuan. Garixa ereittia akabautakuan. Ez, gero, gari-jotekotan ta afarixak onak egoten ziran.
- Bai?
- Klaro! Kuadrillak juntatzen ziran ta. Auzoko... auzokuak ez, soziuak.

Gurian benepein joten ziran. Zeuzken, ba, bostek edo seik zeukan makinak-eta erositta, ta...

- Bai, lehen esan dozuna, ez? Sozidade...

- Bai. Ta gero haretzek juaten ziran. Ta afarixa ona.

- Sardaua ta bakillaua, edo ze izaten zan orduan? Halan, afari ona...

- Ba, baitta oillua hildda be. Oilluak hil ta saltsan ipinita be egoten zian.

Ba, "halakuak ez dau arrautza..." Gure ama zan... bueno! "Halakok ez jon, ba, arrautza asko eitten. Horixe [horreatik] gari-jotian-edo hil bihar jonau", ta holakotxian hil ta...

11. Gariaren inguruko lanak

- **Erref:** ANT-041/014

- **Iraupena:** 0:06:29. **Hasi:** 00:25:17. **Bukatu:** 00:31:46

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Garia igitaiarekin ebaten zen. Auzolana. Gariaren inguruko lanak. Eguraldi beroa behar izaten zen lan horiek egiteko. Gari-jotzea hasieran txanketian egiten zen. Gari-garbitzeko makina.</p>

Transkripzioa

- Garixa ebateko ze erabiltzen zan?

- Ebaitzeko? Igitaiak.

- Segiakin sekula?

- Ez, ez,ez. Segiakin ez.

- Eta zeñek ebaten zeban? Gizonezkuak izango zian, ez?

- Gizonezkuak eta emakumiak be bai. [Dana] emakumiak atzetik, ba, lotzen. Lotzen. Kaletik be joten zian. Geure gizona be bai makiña bat bider jun zan. Lana akabatzen zanian, gari-ebaitzera basarrira. Kriau egonda zeuan basarri baten, ta gertuau zeukan ta [harutz] beñepein egunero.

- Bazekixan zer bihar zan, ez?

- Bai. Berak be, klaro, ohittuta zeuan gaztetan ta harutz be bai. Ta beste asko be holaxe. Hantxe auzokuek beste bi halaxe joten zian Antiguako eliza ondokuak. Bixak junda dia, baiña harek be joten zian illuntzian ta ekiñaldixa eitten zebe. Ta gero harekin batera norberak be gehixao eitten dau. Han kantsauta darenak be, ba, bestiak laguntzen jauen horrekin, ze gehixao eitten dau.

- Azkenian eskuak bihar izaten dia, ez?

- Bai.

- Eta, esan dozu, garixa ebagi ta atzetik emakumiak...

- Lotzen.

- ...lotzen. Zelan lotzen zan garixa?

- Ba, kentzen jakuen ze bat, eta buelta ein ta gero zer batekin katiu, egur batekin katiatzen zan, ta haura azaua izeten zan.

- Eta egur batekin katiatzen zenduen?

- Ez, egur haura buelta emoteko eukitzen giñuan, buelta emoteko. Ez, ez, garixakin berakin lotzen zan. Ta gero sekutzen zianian, metak eitten zittuen, meta haundi batzuk.

- Eta garixa... Azauak esan dozu, eta azauak gero ze eitten zian, lurrian laga?

- Lurrian laga, harik eta puskat sekatu arte. Ta gero sekatzen zianian eitten zan metak.

- Eta azauak, zuk entzunda dakazu, holan, bostekuetan lagatzia edo hamarrekuetan...?

- Ez, hori ez. Ba! Hori leku askotan eingo zebe, baiña parian-parian, ta, ba, leku batzutan garixa be gutxi egoten zan, ta han mehiauak izango zian. Baiña ez, hola, kontau-ta eittekorik ez.

- Eta ze bihar zan, gaiñera? Berua, ez?

- E?

- Eguraldi berua, ez?

- Onbre! Hoixe berua!

- Ta lurrian laga azauak, eta metia noiz eitten zan? Hurrengo egunian ala...?

- Bai, ba, sekatzen zianian. Giro baldin bazeuan, ba, laster! Haura ondo ihartu artian euki, eta gero metak orduan eitten zian.

- Ta igartutakuan metak ein...

- Bai, metak ein.

- Eta metak ze izaten zian, haundixak?

- Meta haundixak, haundixak.

- Eta metak zenbat denporan eukitzen zian?

- Ba, segun giruak zela zian. Giro txarrakin ezin ezetan hasi. Giro ona biher zebe harek berriz... Goizian zabaldu eitten zian, ta bazkalonduan astintzen zian gari-joten.

- Eta metak tapau eitten zian zeozekin?

- Batzuk tapatzen zittuen, baiña oillueatik eta. Tapau ez zian eitten. Oilluak, badakizu? Batzutan puntara ixo eitten zebe ta hareatik-eta bai, baiña ez, guk ez giñuan beñepein tapatzen.

- Eta, esan dozu, azauak ein eta lurrian laga, eta mutxurtu-edo eitten zenduezen?

- Bai, una batzutan bai. Leku batzutan mutxurtu eitten zian, edo umedoso darelako edo zeozetik. Bestela... Baiña sail danian ez, e! Sail danian ez zian izeten.

- Eta, orduan, esan dozu, txanketian ikusitta zarea, ez?

- Bai, bai, akordatzen naiz.

- Eta zelan izaten zan hori? Ze...? Harri-losa bat bihar zan edo...?

- Ba, harrixak egoten zian ipinita illaran. Ba, hiru lagun baldin bazeran, ba, hiru lagunentzako harrixak. Ta beste batek, ba, ekarri, garixa ekarri zeretik, sorotik. Dana lana!

- Eta ze eitten zan? Garixa...

- Hartu ta jo, harrixan jo. Haura be lan ederra ez zan izengo. Guk geuk gutxi ezautu giñuan, e!

- Ikusi bai, baiña gero...

- Ikusi bai. Bai. Gutxi ezautu giñuan. Gu ibiliko giñan, ba, karriatzen. Guk erabili eingo giñuan garixa, baiña...

- Umiak hor be lan ein biharko zebe, ezta?

- Bai, bai, han danentzako egoten zan lana.

- Alia apartau edo...

- Bai. Ez, gero eitten zan hori. Gero makinia zeuan garbitzeko. Garixa garbitzeko makinak egoten zian.

- Orduan, ze izaten zan? Ya metatik pasatzen zan gari-jotera...

- Bai.

-... gizonezkuak eingo zebe hori.

- Bai.

- Jeneralian...

- Jeneralian gizonezkuak.
 - Eta gero ya garixa jo, eta lurrian geratzen zana zelan batzen zan?
 - Ba, eskoban batekin. Eta gero zertu, pillauta ipini, eta handik, ba, hurrengo tokatzen zanian, ba, garbittu. Makinia egoten zan, ta makiniakin garbittu ta jaso. Kutxetara jaso.
 - Orduan, gari-garbitzeko makiñia bazekazuen?
 - Bai, ni beñipein akordatzan naiz ta. Bai, derrior egon bihar; halako sailla daon lekuan makiñia derrior egon bihar zeban. Edo, bestela, auzokuekin ibili edo... Baiña bai, nik makinia ezautzen neban.
 - Eta makiñiak ze eitten zeban? Gari-alia alde batera laga ta...?
 - Arotza bestera.
 - Eta imajinatzen dot dana aprobetxauko zala, ez?
 - Dana, aprobetxau dana eitten zan. Dana aprobetxatzen zan.
 - Ganau-jatekorako edo... Ze izaten zan? Zelan aprobetxatzen zenduen garixan parte diferentia? Arotza esan dozu. Zetarako izaten zan hori?
 - Ba, hori izeten zan, ba, batzutan bota askara ta jan eitten zebe. Beste batzuk ez zebe jaten. Ta, bestela, berriz, lastua gelditzen zan, lasto luzia. Haura sapaira-edo jasotzen zan, ta han egoten zan denboralian. Ta, gero, neguan asko bihar izaten zan, ta negurako, ba...

12. Artoaren inguruko lanak

- **Erref:** ANT-041/015
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:31:46. **Bukatu:** 00:34:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Arto-zuriketa. Arto artean baba ereiten zen. Beraien etxean ume asko zeuden eta arto-zuritzen zeuden bitartean ez zuten arrosariorik erreztatzen. Artoaren inguruko lanak.</p>

Transkripzioa

- Eta artuakin be halako biharra bihako zian, ez?
 - Bueno, artuana diferentia izeten zan, artua aldiko puskat eruaten zan. Ta baba-batzia ta lan ederrak orduan be. Arto artian babia ereitten zan, ta lehelengo, ba, babia batzen zan. Ta gero artuak, ba... Askotan, basotik etorri eta arto-zuritzen ein bihar.
 - Eta ze izaten zan, bihar gogorra?
 - Gogorra ez, baiña halaxe bihar zala ta... Beste etxe batzutan errosarixua erreztatzen zala-ta esaten zebela, ta, ba, guk errosarixua bestelakua erreztatze [onauak]. Danok alkarri demandan edo zarata baten! Ta batzuk esaten zebe: "Halako lekutan errosarixua erreztatzen ei dabe", ta, ba, erentzako, guk ezin geinkian erreztatu ta.
 - Orduan zeuenian ez zan erreztatzen...?
 - Ez, errosariorik ez giñuan guk [ikasi]. Guk geuk gere artian ikesi giñuan ta... Amak berak jakingo dau zenbateraiño zekixan, zeatik haura be ama barik geldittutakua zan, ta...
 - Eta artua ze eitten zan, urkuldu edo zelan...?
 - E?
 - Aletu?

- Gero aletu. Gero ganbarara jaso, e! Umedosua egoten zan artian artua, ta ganbarara jaso ta ganbaran egoten zian eta gero puskat [igartzen] han. Gaiñera, lehelengo, zerian, labeko sua eitten zanian, labera be ekartzen zan zera, artua, pixkat ihartutzera, gero artiriña eitteko. Bai. Ogixa be etxian eitten giñuan guk, allegatzen zaneraiño. Noizbaitten falta baldin bazan, ba, parientiak geunzkan ta Antiguako errotara jun ta handik ekartzen giñuan, baiña, bestela, etxeko ogixa.

- Esan dozu garixa gero kutxetan sartzen zenduela.

- Kutxetan sartzen zan, bai.

- Artuakin halakorik eitten zan? Kutxetan sartzen zan?

- Ez, ez, ez, ez. Artua aldiko puskat aletzen zan, biher zana. Haura ganbaria zela izaten... Ganbara haundixa geunkan, ta ganbaran zela egoten zan, haura artua ganbaran egoten zan. Biher zanian, "Artua komeni da, ba", ta oilluentzako-ta ekarri ta aletu ta bota. Eta zererako, errotara eruan bihar zanian be horixe.

13. Garia Antigua errotara

- **Erref:** ANT-041/016
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:34:17. **Bukatu:** 00:37:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Errotak: Antigua errota; Errotabarri; "Txanbolingua". Garia errotara eramateko, errotarako-zakua erabiltzen zen (ohikoa baino finagoa). Beraiek garia bizkarrean eramaten zuten errotara. Beste askok astoan eramaten zuten. Astean behin, larunbatean, "labako sua" egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Ta hemen, errotarik bazekazuen hemen inguruan?

- Bai, Antiguan bertan geunkan guk bat.

- Eta ze izen zekan errotiak?

- Errotiak? Antigua-errota. Don Isidro... Zu ez zara akordauko. San Migelen oindio ez da urte asko hil dala.. San Migelen hil zan. Uzarragan egon zan abade, ta... Abadia zan. Parientiak giñan gu. Antiguan bazeuan errotia. Gero, Errota-barri beste bat, Txanbolingua [ere] bazuan beste bat, ta ez dakit gorauan be ez ote zeuan beste bat.

- Hemendik pasatzen dan errekoa Antzuola errekoa da, ez?

- Bai.

- Ta errota guzti horrek hemen erreka baztarretan ipinittakuak izango dia, ez?

- Bai, bai.

- Ta, orduan, errota dexente...

- Errotak horretxek zeren. Errota-berri ta Antigua-errotakuak horrek zian zerenak, ta gero Txanbolingua be bai. [Auzo haretakuak] danerakuak. [Izarrakuak]... Han zertzen zittuen, Txanbolinguan.

- Eta garixa-ta errotara zelan eruaten zenden?

- Zakuan. Aparteko zakuak, zaku fiñauak izeten zian, e! Ez zien izaten, hola, bestela erabiltzen zan zakua. Errotarako zakua izaten zan fintxuaua.

Klaro, iriña ekarri biher izeten zan ta!

- Eta ze izaten zan, astuan eruan, ala zelan?
- Ez. Guk gertuan geunkan, ta guk bestera eruaten giñuan. Bueno, gertuan... Ez zeuan gertuan Antigua Ibarretik, baiña bai, beti bizkarrian eruaten giñuan. Bizkarrian eruaten giñuan. Geu be gogor samarrak giñan, ta bizkarrian eruaten giñuan. Baiña, bestela, astuan jendiak.
- Eta errotara eruaten zan garixa, ta gero bueltan...
- Bueltan iriña.
- Eta urtian zenbat bidar edo zenbat buelta eitten zian bertara? Asko?
- Hoixe ezin esan!
- Asko, ez?
- Asko. Klaro.
- Orduan, gaiñera, garixa...
- Garixa ta artua, bixak bihar izaten zebe ta. Garixa, ba, astian. Astian eitten zan zera, labeko sua. Zapatuan, jeneralian, labeko sua izeten zan. Hurrengo zapaturarte, ba, ogi harekin. Falta baldin bazan, Antigua-errotakuak parientiak-eta giñutzen ta... Baiña, bestela, ogi [erosixa] jan bihar.
- Ta labako sua zelan eitten zan, edo zeñek eitten zeban?
- Amak. Amak eitten zeban gurian. Guk ez giñuan... Gu ez giñan allegau horrek ikestera. Gero, ba, kaleko ogixoi hasi biheko zebe ama ez zan denboran ta...
- Ta labako sua, orduan, astian behin eitten zan.
- Astian behin eitten zan labako sua. Guk zapatuan eitten giñuan jeneralian.

14. Ama Bergarara joaten zen tratura

- **Erref:** ANT-041/017
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:37:22. **Bukatu:** 00:40:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Euskara » Lexikoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Igandetan ama "tratura" joaten zen Bergarara. Esne-saltzea Antzuolan bertan egiten zuten umeek. Bergarara oinez joaten ziren; urteetara, Txarrona eta, geroago, Idarreta autobusak ipini zituzten.</p>

Transkripzioa

- Gero domekan Bergarara jun bihar izeten zebe tratura oiñez, aurreratuta zeuzken arrautzak saldu-ta eittera, ta...
- Orduan, Bergarara ama juaten zan?
- Ama jutun zan, bai.
- Eta ze eruaten zittuan? Arrautzak eta...?
- Arrautzak eta baba puskat be igual, baba-gorri puskat be. Oso leku honekua zala esaten zebe hango babia, ta babia be eruaten zeban. Ostiantzian ze erungo zeban, ba?
- Ortuarixak eta ez?
- Ez, ortuko zerik-eta ez.

- Eta esnerik-eta...?

- E?

- Esnerik-eta ezta?

- Esnia bai. Esnia partitzen giñuan, e!

- A, bai? Hamen bertan?

- Bertan, bai. Esnia, ba... Antigua, hori dao, ermittia daon zerori dao, ba, esnia haraxe bai, behintzet, ta kalera be bai. Esnia, ba, dana zabaltzen zan.

- Eta ze eruaten zenduzen, marmittak edo...?

- Marmittak ta pitxarrak be bai ta... bakutzak bere tamaiñua igual.

- Ta ze izaten zian, bezeruak eukitzen zenduezen?

- Bezeruak, bezeruak egoten zian, bai. Hillian edo astian-edo pagatzen zeben, ta bezeruak. Honek dittun gauzak esaten diharduguna!

- Eta ze izaten zan: hillian edo astian pagau eta zeuek apuntau eitten zenduen nunbaiten ala...?

- Bai! Ke ba!

- Buruan apuntatzen zenduen?

- Jakiñekua izaten zan ta! Halako lekutara horrenbeste. Ipinitta zeuan bakutza bere zerak, neurrixa ta.

- Eta esne-partitzen zuek umiok ibiltzen ziñazien?

- Geu, geu ibiltzen giñan. Geu ibiltzen giñan.

- Eta ama, Bergarara tratura ama?

- Ama, ama. Geu be iñoiz gero bai, puskat haundi ein giñanian edo, baiña ez. Ama. Ta oiñez jun ta etorri eitten zan, ta haundixa ta zabala zan, e!

- Eta bidia orduan be ez zan izango gaur egunekua...

- Ba! Ez, ez zeuan orduan trabarik eta. Ta gero hementxe zer batek ipini zeban --ez dakit nundik ekarri zeban--, [txarrona] esaten zotsen, halako katxarro bat. Eta haretxek ipini zeban, ta hauraxe hasi zan. Ta gero, Idarreta hasi zan hurrengo zera ipintzen, autobusa ipintzen. Azkenaldera gure ama be autobusian jungo zan, juten bazan, edo, bestela, besten batek jun biheko zeban edo... Guk alde ein giñuanian artian bera juten zan.

- Eta Bergarara juan eta han ze...? Plazara juaten zian?

- Plazara be bai. Bai. Eta beste batera neu be junda nao. San Pedroko elizatik goittik behera bajau, ta --orduan Eustakianekua esaten jakon izena; ez dakit ze zan-- San Pedroko zerak bajau, eta tratuko plazian ondo-onduan zeuan denda bat, ta haraxe be eruaten zian arrautzak.

- Orduan, arrautzak basarrixan...

- Bai, bai. Arrautzak saldu eitten zian, orduan arrautzarik ez zan jaten.

- Estimauak izaten zian saltzeko, ez?

- Bai.

- Eta astorik ez zeban erabiltzen, orduan?

- E?

- Astorik ez zeban erabiltzen; oiñez juaten zan...

- Ez, ez. Guk astua euki ein giñuan, baiña hortarako ez zan haura. Haura zan ganauei laguntzeko, Deskargara-ta juteko. Ez. Astorik ez giñuan guk usau traturako.

15. Soroak bedeinkatu; sinesmenak

- **Erref:** ANT-041/018
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:40:55. **Bukatu:** 00:45:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Abadea sorolak bedeinkatzera joaten zen, konjurua egitera. Ur bedeinkatua etxean egoten zen. Bedeinkazioaren trukean, arrautzak ematen zitzaizkion. Pazkoan, umeak ibiltzen ziren ur bedeinkatua baserriz baserri banatzen. San Juan egunean, loreak bedeinkatzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta zeuk goguan dakazu edo hemendik eitten zan abadiari-ta arrautzak emon... Soluak bedeinkatzera juaten zan eta...
- Bai.
- Halakorik bai?
- Goguan eukiko ez dogu ba! Hoixe!
- Bai? Eta zelan izaten zan hemen?
- E?
- Zelan eitten zan hemen? Abadia noiz juaten zan soruak bedeinkatzera?
- Abadia, ba, gari-denboran edo izengo zan, ezta? Zeatik geure [...] dao ibilita don Leandrokin ta don Bartolomekin-ta horrekin ta. Harei laguntzera jun zestuakin ta arrautzak emongo zotsen gero. Konjurua edo esaten jakon.
- Eta ze zan, errezoren bat eitten zeban?
- Bai, bedeinkaziñua botatzen zebe sorora. Ur bedeinkatua etxian egoten zan, ta bedeinkau sorua ta...
- Eta ze... Fetxa konkreturen bat izango zan, eta konjurua eitten zeban abadiak. Ta dirurik-edo pagatzen jakon?
- Ez, ez, arrautzak emoten zotsen.
- Arrautzak eta...
- Arrautzak edo zeoze, parian zeuana.
- Oillandak edo...
- Ez, ez, oillandataraiño ez zan allegauko. Oillandak karu zeren orduan.
- Eta sorua bedeinkatu eta, esan dozu, ur bedeinkatua eukitzen zenduela.
- Bai, ur bedeinkatua beti eruaten zan etxera, e!
- Ta ze fetxatan-edo?
- E?
- Noiz bedeinkatutako ura?
- Ura, ba, Pazkua egunian, ta gero beste bat be, beste egun bat be egoten zan. Bi aldittan egoten zian. Herrixan ur bedeinkatua partitzen ibiltzen zan umiak.
- A, bai?
- Bai. Guk geuk Antiguara eruaten giñuan ta pezeta bat emoten zoskun zerak, hango [...]. Antiguako elizara eruaten giñuan ta pezeta bat emoten zoskun, ta haura dirua zan.
- Oseake, zeuek ur bedeinkatua elizara eruaten zenduen?
- Bai. Elizara ez, elizatik. Elizatik harutz, elizatik Antiguako elizara.
- Eta bidian basarrixetan-edo laga ta...
- Bai.
- Edo etxietan eta...
- Etxetan.
- San Juanetan halakorik eitten zan?

- E?

- San Juanetan? San Juan egunian edo halako...?

- Lorak bedeinkatzia.

- Lorak bedeinkatzia. Eta ixua edo su bedeinkatua edo halakorik entzunda dakazu?

- Suak eitten zittuen, basarritan be bai, ta hemen kalia bertan be bai. Sua eitten dabe.

- Eta orduan umiak ibiltzen zian ur bedeinkatua partitzen?

- Ez, ez, ez. San Juan egunian ez.

- Baiña bestela, Pazkuan edo...

- Pazkuan. Pazkuetan. Pazkua zapatuz. Pazkua zapatuz bai.

- Ostiral Santu egunetikan hurrengo eguneko goizian eitten zan.

- Eta ze juaten ziñazien, urakin? Eta ura gastatzen zanian?

- Ez, gastau baiño lehenao itturritik [hartu].

- Itturritik bete be bai makiña batek!

- Bai, e?

- Bai, libre zan hori. Ura gastau bada, itturrixan betetzen zan.

- Dana zan bedeinkatutakua.

- Klaro, [horrek bedeinkatua], pegau eitten da hori. Ez da [diru... bestia moduan]. Horrek igualeko zera balio dau, berdin-berdin.

- Bai, ez? Halako tranpatxuak-eta be...

- Bai, bai, ein ein bihar. Ein ein bihar.

- Ta gero mutikuak sua eruaten zebe. Sua bedeinkatzen zan, ta mutikuak ieska batekin juten zian. Ieska batekin. Badakizu ieskia zer dan? Ba, ieska hori siku-siku daonian, ondo erretzen da haura. Eta eruten dozu burduntzi baten, burdiñazko makilla baten eruten ziñuan haura suakin. Eta etxe batera allegautakuan, poltsikuan eruaten zittuan ieskian izpizak. Ta izpiza han biztu ta emoten jatzun basarrikuai ta harek haura botatzen zeban sutara, ta sua beti bedeinkauta zeukan.

- Ta "[...] su-barri!" diar eitten zan.

- Mutikuak sua ta neskak ura eruten zebe. Baiña hori dana zapatu horretan, e?

- Bai, Pazkua zapatuz. "Pascua de resurrección".

16. Sinesmenak

- **Erref:** ANT-041/019
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:45:02. **Bukatu:** 00:47:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

<p>Erramu Egunean, gurutzeak ipintzen zituzten soroetan. Kredoa errezatu behar izaten zen Asentzio Egunean. Kandela-bedeinkatua pizten zen ekaitza zetorrean.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, soluan ipintzen zian kurutzak edo erramua edo...
- Horrek Erremu Egunian. Beonek be bajakik zeoze, e!

- Ez, ez, ez. Nik entzunda zeoze, baiña ez dakit.

- Erremu Eguna izeten zan hori. Eta kredua errezau biher izeten zala ta batzuk errezau be eitten zebe, e!

- A, bai, e?

- Bai.

- Kredua zan, Asenzio Egunian berrogei kredo.

- Bai, horrek bai, baiña kurutzia ipini zerian, soruan, ta --gurian batenbati erain zotsen beñipein-- belaunbiko jarri ta kredua errezau erein ta...

- A! zera eitterakuan., soruan ipintzerakuan? A! Bai, orduan bai. Kurutza bat ipintzen ziñuanian kredua errezau biher zan.

- Bai, kredua errezau.

- Orduan, halako siñeskerak-eta egoten zian, ez?

- Bai.

- Han, basarrixan eta, gaiñera, orduan sorua inportantia izango zan eta...

- A, bai! Orduan sorua zeuan bakarrik, beste ezer ez zeuan.

- Ondo bedeinkatuta egon bihar zan...?

- Bai. Ur bedeinkatua, ba, urte guztian egoten zan etxian, e!

- Bai, [...] ta gero, artien be egoten baldin bazan ekaitza eta labore dana galdu eitten baldin bazan be, ba, zelan ez zan jakitzen zein zan jangoikuan borondatia, ba...

- Igual hori eitten zeban?

- Bai. Sekula ez dot ikusi...osea, denunziaik ez zan ipintzen ez zabelako asuntuak [funzionau].

- Orduan, hori, ez? Eguraldixa be asko zaindu bihar zan...

- Bai, bai, bai. Ba, hola, hodia-ta zeuanian, pizten zan kandela bedeinkatua. Ointxe be pizten da, e! Ointxe be kandela bedeinkatua pizten da.

- Inportantia izango zan, ez? Beti gora begira ia...

- Bai.

-... garixa ia ez dan estropeatzen ta...

- Bai, garixa zeuan denboran-ta geizki! Orduan hodia tokau ezkerio, oker haundixa eitten zan. Baiña hemen ez giñuan holako asko euki.

17. Argindarra; gauean egiten ziren lanak

- **Erref:** ANT-041/021
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:48:30. **Bukatu:** 00:49:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Argindarra, Antiguako errostatik hartzen zuten. Behin etxean goruetan zebiltzala, sokasaltoan hasi ziren eta bonbila apurtu zuten. Baserrietan gauez egiten ziren lanak: goruetan egin, artoa aletu...</p>

Transkripzioa

- Lehen esan dozu bonbillia-edo apurtu zenduela, baiña orduan argixa be, argi elektrikua...

- Zuk beti ezautu dozu argi elektrikua?

- Nik bai.

- Beti ezautu dozu etxian?

- Bai, Antigua-errotakuak emoten zebeñ. Bajua, e! Bajua izaten zan, baiña bai.

- Oseake, gabian gorutan eitteko-edo eskertzekua izango zan argi...

- Guk gorutan eittiari laga erain gontsan, soka-saltuka hasi giñan ta. Hauraxe, ba, nahi, madeja hauraxe akabatzia nahi zebeñ koittauak ta gu soka-saltoka hasi, eta bonbillia apurtu. Ta ez zuan egongo beste bonbillaik! Hori goguan daukat. Harek hartu zebeñ penia!

- Ta, halan, gabetan-eta ze bihar eitten zian? Esan dozu, gorutan edo artua aletu...

- Artua aletu be bai ta... Gurian gorutan. Ostiantzian ez zebeñ lan asko eitten.

18. Aita karretero gurdi eta idiekin

- **Erref:** ANT-041/022
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 00:49:32. **Bukatu:** 00:54:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

<p>Gizonezkoek etxeratutakoan zer egiten zuten. Aitak karretero lana egiten zuen. Zumarragara eta inguruko herrietara joaten zen gurdi eta idiekin. Egur-ikatza, larrua... eramaten zituen. Larru-ontzeko fabrikak: Arbulu, Telleria, Ondarre eta Bareño. Karretero lanaren inguruko kontuak. Bergaratik etortzen zen "Carlos txiki"ri laranjak lapurtzen zizkieten.</p>

Transkripzioa

- Gizonezkuak ze eitten zebeñ?

- Tabernatik goizao etorri ezkerio, loguria galanta ta ohera.

- Tabernara juaten zian basarriko gizonak be bai?

-Bueno, haura urte askuan ibili zan, ba, karretero. Ta kantsauta be bai. Ez, beste... Gero ez. Gero gurekin batera ibiltzen zan: basora jun ta basotik etorri ta...

- Eta aitta karretero -gaiñera, aurreko egunian esan zetzazun- ze ibiltzen zan Zumarragara edo...?

- Zumarragara. Zumarragara eta ostientzian be bai, zeatik Plazentziarakuan, goguan daukat, hor erre zan pinudi bat. Hi be ez haiz akordauko. Eta haura etxetik urten eta orduaintxe su hartu piñudixak, ta aguazillai atia jo zotsala. Esan zotsala: "Juan Jose, hola ta hola sua jak, ta kanpaia jo edo zeoze ein eik". Eta bera larri jun zala. Iketza zeroiarren, egur-iketza, eta txingarren batek zertuko ete zebeñ. Ez, harek, gure gazte-denboran benepein, beti zerian, karretero ibiltzen zan. Gero, klaro, hasi zian zerak. "Txarrona"-k ekarriko zebeñ lehelengo.

- Kamioia?

- Kamioia. Ta kamioiak, ba, errez eitten zebeñ bueltia.

- Eta, gaiñera, esan zenduan, burdixakin eta idixekin ibiliko zan, ez?

- Bai. Bai.

- Eta zelan esaten zetsazun? "Bolantia" edo...?

- "Bolantia", "bolantia".

- Eta beti egur-ikatzala ala batzuetan egur ikatza ta beste batzuetan... segun ze izaten zan?

- Segun ze izeten zan. Ba, hemen orduan fabrika koskorrak zeren ta besterik ez zeuan. Ta haretzek erabiltzen zeuben. [Manuel Udala] ta bixak ibiltzen zian.

- Fabrikako narruak-eta Zumarragara-ta honek eruaten zittuen?

- Horrek eruaten zittuen.

- Antzuolakua eruten zeuben jeneralian?

- Antzuolakua, bai, bai. Ta, gero, lehen esan dotena, ba, iketza, basarrixan be iketza asko eitten zan. Ta haura edo Bergarara edo... Orduan Plazentziara esaten zeban zijoiarrela.

- Oseake, egur-ikatzala enpresetara eruan eta ze gehixao? Narrua, esaten dozue?

- Narrua.

- [...] narrua Zumarragara [...tzeko] trenez. Trenez [...tzeko] Espaiña aldera edozein gauza.

- Eske entzunda dakat Bergarara be narrua bertatik eruaten zala, ba, zapatak eitteko ta gauza askotarako, ez?

- Bai.

- Orduan, hemen narru-enpresa edo fabrika bat be...

- Hiru zeretzen.

- Hiru?

- Lau be bai. Ezta?

- Bai, hola, zapatak eittekoa bat.

- Arbulu, Telleria, Ondarre eta Bareño. Lau fabrika egon zian kurtiduan.

- Eta, orduan, ze urtetzen zeban, goixian goixao izango zan, ez?

- Bai, jeneralian. Klaro, ganauak berotu ez deitzezen be bai.

- Eta idi-paria beti ondo zainduta...

- Bai. Harentzako pentsu gehixao behixentzako baiño. Ta amai, berriz, behixana komeni esne gehixao emoteko, ta nahikua lan!

- Bai, ez? Batera ta bestera, dana ondo zaindu bihar...

- Bai.

- Eta ze izaten zan goizian goiz urten eta gero arratsalderako bueltia?

- Bai, bai, atzera zererako bueltia.

- Eta hori egunero-egunero?

- Egunero be ez, baiña, bai, askotan. Klaro, Zumarragara ez baldin bada, ba, Bergarara edo -lehen esan dotena- Plazentziara be juaten zian.

- Eta gero, pagau-eta zelan eitten zetsen?

- E?

- Pagatzia-ta zelan izaten zan?

- Ez dakit, zela-hala ibili bihako zeuben, [...] bakoitzak pagau bihar... Biajia pagau bihako zotsen edo ez dakit zela eitten zeuben. Bergaratik be etortzen zan. Oindio loiba bat hementxe obran dabillega esan zeuben. "Carlos Txiki" esaten gontsan. Eta ekartzen zittuen zerak, ganauentzako pentsua eruateko kanpezotan, naranjak ekartzen zittuen. Orduan itxuria bagoian etorriko zian naranjak, eta naranjak. Ta gu, berriz, Antiguako ermitta inguruan ibiltzen giñan jolasten, libre gendenian, ta harrapatzen gontsen naranjak. Lehengo baten batek hamen esan zotan: "A! Haren loibia dabil hamentxe ta haritxi esan bihar [jaot]", "Nahi badok esaixok! Haura jun zuan ta guk naranjak jan giñuztan ta!".

19. Antiguako ermita

• Erref: ANT-041/024

- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:55:20. **Bukatu:** 00:56:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Antiguako ermitara egunero joaten ziren angelusa errezatzeraz.</p>

Transkripzioa

- Orduan, deboziñua zetsazuen?
 - Bai, nik bai. Antiguako ama birjiñiantzako? Onbre! Zenbat bidar angelusa errezatzeraz juten giñan gu harutz.
 - Bai?
 - Klaro! Egunero ipintzen zebeñ ta. Angelusa egunero.
 - Egunero izaten zan angelusa, e?
 - Angelusa egunero.
 - Ta ze ordutan?
 - Istantzian, gu etxera erretiratzeko inguru hortantxe. Hango zerak esaten zoskun: "Ala! Ointxe zertu bihar jonau, errezañ bihar jonau" ta. Zenbat izango zan, ba? Hiru "Ave Maria"-edo errezañ giñuztan ta. Harek [behe] argixa piztu ta eitten zittuan. Orduan be argixa-ta beti egoten zan, e!
 - Eta zeñek zaintzen zeban ermittia?
 - E?
 - Zeñek zaintzen zeban ermittia?
 - Hantxe bertan bizi zan batek. Ta gero haura hil zanian, erreñña geldittu zan, ta haura be hil zan, ta oin beste batek zaintzen dau. Beste [suelto]... ta oso edarki ipintzen dabela, oso ederki be Ama Birjiñia. Ointxe be halaxe daola esan zebeñ.

20. Kanpaiak; mezak

- **Erref:** ANT-041/025
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:56:30. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Kantari klaseak: argi-albako kantaria; aramaitakoa edo angelusa. Mezak. Fedea.</p>

Transkripzioa

- Hemen Antzuolako elixako kantaria eta, ze izaten zian goixian goiz albakua ta...?
 - Bai.
 - Pixkat kantaria ze... Izenak eukitzen zittuen, ez?
 - E?
 - Izenak eukitzen zittuen kantaria...

- Bai, ba. Goixian argi-albokua. Ta gero hamabittakua ez dakit ze izeten zan. Hamabittan be joten zebe, ta ordu bittan be bai beste bat. Ta gero angelusa.

- Ta ordu bittakuak ze izen...?

- Ez dakit ze esan nahi zebe. Ez dakit ze nahi zebe. Ta gero angelusa.

- Eta aramaittakua edo...?

- Bai, aramaittakua horixe, aramaittakua.

- Angelusa da hori?

- Angelusa. Oin angelusa esaten [jotsanau]; orduan aramaittakua.

- Eta eguerdiko hamabixetakua zetarako izaten zan?

- Haura ez dakit [ze eitteko] izeten zan.

- Jentia [hemendik] urten ta [bazkaldu] edo...

- Bai. Baiña kanpaiak orduan asko jotzen zian. Bai.

- Bai? Eta zarata diferentia eukitzen zittuen?

- E?

- Soifü diferentia eukitzen zebe kanpaiak? Goizekuak...

- Ez, ez, ez.

- Danak igualak?

- Orduan sokiakin tira einddakuak. Oin dana elektrikua da, ezta? Baiña orduan sokiakin zertzen zebe. Orduan sakristauantzako-ta lan haundixak egoten zian. Oin sakristaurik be ez dau ta ezebe ez dau.

- Eta, halan, entierruetarako deiza-edo zanian, kanpaia diferentia izango zan, ez?

- Bai, agonixia, agonixia.

- Umeren bat-edo hiltzen bazan kanpaia be diferentia zan?

- Aingeru-kanpaia esaten zebe; kanpaia diferentia umiana. Aingeru-kanpaia.

- Orduan, entzuten zan eta gitxi gorabehera jakitzen zenduen ze...?

- Bai. Bueno, batai preguntau, bestiai preguntau, belaxe enteratzen zan jendia.

- Oin esaten dozu elektrikua dala, ez? Justo oin entzuten dou...

- E?

- Oin justo kanpaiak jotzen dare, ta...

- Bai. Zerian ez dabe jotzen, domekan ta... zapatuan ta domekan ez dabe jotzen. Ez dau jotzen erlojuek. Kejau ein zan [...] jendia zarata haundixa etaratzen dabelako edo.

- Mezak-eta ze ordutan izaten zian? Lehen basarrittik jeiten zan jendia goizian goiz meztara ala...?

- Ez. Jaixan?

- Jaixan edo egunian zihar...

- Ez, egunian...

- ...orduan ama edo amak esanda edo... Igual, goixian goiz, goizeko seiretan...

- Ez, ez. Jaixan bai, baiña aste-egunian ez zan jendeketaik etortzen. Ez.

- Ea jaixetan bai. Osea, domekan...

- Domekan bai. Domekan, seiretan hasi ta gero hurrengua beratzittan egongo zan ta gero hamarretan.

- Orduan, zeure aman denporan, fede haundixa eukiko zebe, ez? Edo...

- Onbre!

- Meza kontuak-eta asko zainduko zian, ez?

- Bai, orduan kuidao haundixa egoten zan. Dantzia-ta ez hunan orduan giro izeten.

21. Erromeria San Isidro egunean

- **Erref:** ANT-041/026
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:02:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Musika igande arratsaldeetan. Bergaratik ere jende asko joaten zen. San Isidro egunean erromeria handiak. Abadearen esanak. Deskargara joaten ziren erromeriara.

Transkripzioa

- Ze egoten zan, dantzia? Ze izaten zan hemen domeka arratsaldetan?
- Bai, domeka arratsaldetan. Bergaratik-ta jende asko etortzen zan.
- Eta ze jotzen zeban hemen bandiak edo...?
- Ke ba, filarmonikan bat. Ez, gero gramolia ipini zeben. Gramolia ipini zeben.
- Eta ze etortzen zan... filarmonikia ze zan, bertakua?
- Bai, Bergarako jentia be asko etortzen zan, e! Asko etortzen zan.
- Anbientia zekazuen orduan?
- Bai. Ta gero, San Isidro egunetik aurrera, udan, frontoian egoten zan. San Isidro egunian be erromerixa ona egoten zan. Lehelengo ferixia, ganauenta ferixia egoten zan, ta gero erromerixia.
- Eta dantzak-eta esaten dozu pixkat zainduta. Abadiak eta zaintzen zeben dantza kontua? Neskak eta mutillak eta...
- Bai, konfesatzera jutun zan guztian. Esaten baldin baziñuan dantza ein ziñuala, ba, harek etarutzen zeben eren errosarixua [...], baiña... Baiña hurrengo haxe be igual. Nik urte batzutan bai, baiña gero ez neban zertzen. Juten giñan, pentseizu, Deskargaraiño juaten giñan erromerixara. Lagun bat neukan, eta harek nobixua zeukan, ta harek nahi izeten zeban haraxe juatia.
- Nora Deskargara?
- Deskargara. Oiñez, e! Oiñez jun ta oiñez etorri. Eta aspertu giñanian, aspertu nitzanian, esan neban: "Bueno, neu ez noia, e! Ni aspertu non horrutz jutun ta ni ez najoianan. Gaiñera, Don Eusebio... gaur hasarre samar konpondu non don Eusebiokin ta ez najoianan ". Ta holaxe geldittu nitzan jun barik Deskargara.
- Eta Deskargan ze egoten zan, erromerixia?
- Erromerixia. Etortzen zian, ba, Legazpittik ta... jende asko etortzen zan.

22. Inguruko erromeriak; neska-laguntzea

- **Erref:** ANT-042/001
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:25

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Deskargara erromeriara oinez joaten ziren. Uzarragako erromeria. Neska-laguntzea. Guztia abadeari konfesatu behar.

23. Garizuman erromeriarik ez; beste ospakizun erlijioso batzuk

- **Erref:** ANT-042/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:03:25. **Bukatu:** 00:05:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromerietan filarmonika egoten zen. Garizuman dantza egitea debekatuta. Arimen Eguna. Bezperak.</p>

24. Herriko eskolan klaseak erdaraz; aitarentzat garrantzitsua zen umeek erdara ikastea

- **Erref:** ANT-042/003
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:09:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Herriko eskola. Adin desberdinetako neskak elkarrekin gelan. Doña Felipa izan zen bere irakaslea. Gerora doña Isabel egon zen. Klaseak erdaraz izaten ziren; aitak erdaraz ikastea nahi zuen. Aitak rebistak erosten zituen etxerako.

25. Mutilen irakaslea gogorra zen; zigorrak

- **Erref:** ANT-042/004
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:10:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Mutilen eskola. Irakaslea gogorra zen eta umeek asko ikasi zuten. Zigorrak.</p>

26. Etxean lanik ez zegoenean joaten ziren eskolara

- **Erref:** ANT-042/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Sasieskola. Ez zuten piper egiten, baina etxean lana bazegoen eskolara joan gabe geratzen ziren. Liburuak. Behin Jaunartzea egin eta gero, lanean hasten ziren.</p>

27. Eskola amaitutakoan, mutil asko morroi joaten ziren baserriren batera

- **Erref:** ANT-042/006
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:14:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Mutil gehienak eskola amaitu ondoren, morroi joaten ziren baserriren batera. Morroiaren harremana etxekeekin nolakoa izaten zen.

28. Neska gehienak eskola amaitutakoan, neskame

- **Erref:** ANT-042/007
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:15:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Eskola amaitutakoan, neska gehienak neskame joaten ziren inguruko herriren batera.

29. Antzuola eta Bergara; herrien nortasuna eta harremana

- **Erref:** ANT-042/008
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:16:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Antzuolarrak eta Bergararrak; herrien eta herritarren arteko harremana.

30. Lehenagoko arropak; oinetakoak

- **Erref:** ANT-042/009
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:20:05

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Umetan nola janzten ziren. Abarkak; abarketak. Abarkagilea. Gurasoak nola janzten ziren. Amak, gona eta "txanbria" erabiltzen zituen. Oinetakoak.

31. Gizonezkoen arropak

- **Erref:** ANT-042/010
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:21:00

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Gizonezkoen arropak. Txalekoa; tunika.

32. Nesken orrazkera

- **Erref:** ANT-042/011
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:22:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Orrazkera. Kopetak.

33. Umetako jolasak Antiguako eliza inguruan

- **Erref:** ANT-042/012
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:25:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: tortoloska; orrazka. Antiguako eliza inguruan jarduten zuten jolasean: pote-poteka; bule-buleka; gorde-gordeka. Neska-mutilak elkarrekin jolasean. Txirikila. Kaleko eta baserriko umeen arteko harremana. Txirtxil-batzea; gaztainatara.

34. Ilbeheran aitzak ganbaran bilduta zeuden gaztainak eragiten zituen

- **Erref:** ANT-042/013
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:28:00

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Baserrrian gaztaina asko biltzen zituzten eta "gaztaina-salia" izena hartzen zuen ganbaran gordetzen zituzten. Ilbeheran aitak eragin egiten zituen. Gaztaina erreak; egosita jan nahi izanez gero, zuritu egin behar ziren.

35. Garo-batzera joan eta basoan egiten zuten bazkaria nolakoa izaten zen

- **Erref:** ANT-042/014
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:30:40

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Basoak baserritik urrun zeuden. Pagoak; gaztainadiak... Ahizpa eta bera garotara joaten ziren eta eguerdiko 12etan trena pasatzen zenean, bata perretxiko bila joaten zen eta besteak sua egiten zuen; primerako bazkaria egiten zuten.

36. Perretxikotara gaztetan

- **Erref:** ANT-042/015
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:32:15

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:

Perretxikotara gaztetan. Ondoak, gibelurdinak, e.a. Amak ez zituen nahi izaten, olio asko behar izaten zuten eta. Txerri-hiltzea.

37. Jatekoa baserrian; txerri-hiltzearen garrantzia

- **Erref:** ANT-042/016
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:32:15. **Bukatu:** 00:35:25

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Jatekoa baserrian. Txerri-hiltzea. Jatekoaren inguruko azalpenak.

38. Egun berezietan, jatekoa ere berezia izaten zen

- **Erref:** ANT-042/017
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:35:25. **Bukatu:** 00:36:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Jatekoa egun berezietan. Gabonetan bakailaoa, intxaur-saltsa, konpota. Jai egunetan garbantzua. Galafaria. Urtebetetzeak.

39. Gaztaina-batzea, belar-ondoa eta garo-batzea

- **Erref:** ANT-042/018
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:39:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Gaztaina-batzea. Zakuak bete eta gurdia kargatu. Olamendi. Lera. Garo-batzea. Belar-ondoa.</p>

40. Umetan ikusi zuen lehenengo autoa

- **Erref:** ANT-042/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:42:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Ikusi zuen lehenengo autoa, Mobillasenekoa izan zen.

41. Lurrunezko trena Zumarragara

- **Erref:** ANT-042/024
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:44:20. **Bukatu:** 00:45:45

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Zumarragara trena. Geltokiak: Iturriotz; Amilleta. Lurrunezko trena.

42. Aitaren ogibidea: karretero

- **Erref:** ANT-042/025
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:46:30

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Aita karreteroa zen.

43. Gerra Zibila Antzuolan: jendea ihesi; kartzelaratuak

- **Erref:** ANT-042/026
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:46:30. **Bukatu:** 00:50:30

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaia. Herriko jende asko ihesi; beste asko kartzelan. Senide baten inguruko kontuak.

44. Gerra Zibila Antzuolan: jendea ihesi; bonbardaketak

- **Erref:** ANT-042/029
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:52:10. **Bukatu:** 00:55:10

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Goserik ez zuten pasatu, baina estutasun handia bai. Errazionamendua. Bonbardaketak. Batez ere Elgeta aldean izan ziren bonbardaketa handienak. Bergaratik jendea ihesi.

45. Antzuolako karlistak eta errepublikazaleak

- **Erref:** ANT-042/030
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:55:10. **Bukatu:** 00:55:55

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:

<p>Antzuolan karlistak, errepublikazaleak. Centro Republicanoa non egon zen.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com